

Aretxagazeta


Aretxabaleta • 2001eko urtarrilaren 12a • 205. zka.

Urak eraman zituenak

Gabonak argazkitan • Iturririk iturri: Leire Okaranza • Iritzia: Ibon Agirre

Gemes

estetika zentrua



GORPUTZEKO TRATAMENDUA:

zelulitisaren aurkakoa

loditasuna

zirkulazio arazoak

lasaigarria

drenajea

reafirmatzailea

“TERMOESTIMULAZIOA”

Teknika berria

Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak (natural-naturalak) manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Eskuen eta hanken... dekolorazioa
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

Durana, 40 2 - ARETXABALETA
Tel.: 943 79 99 18

Jokaldirik onena!
¡La mejor jugada!



UDAL EUSKALTEGIAK

2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINTZA

Euskalduntze,
alfabetatze maila guztiak, EGA.
Mintzamina lantzeko talde bereziak.
Sakontze ikastaroak.

ERRITMOAK

Eskarieren arabera, erritmo desberdinak
eskain daitezke. Galde ezazu!

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez 09:00-13:00 • Arratsaldez 15:00-19:00

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu
16 urtetik gorakoentzat.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa, 2-4
Tel.: 943 79 21 68
20550 ARETXABALETA

Intxaurtxueta, 10
Tel.: 943 79 21 68
20540 ESKORIATZA



Gazen sasoiaren egonda normala da holako egualdixe ittie? Edurre ein daizen gura dozu?




Felix Kortabarria

Ez da bape normala. Lehenauko moduko negue inbiekio lauke, edurre ein eta hilabetien kendu ezinik. Aurtengo neguek, negu tropikalak emuten dau.



Nerea Arriola

Ez da oso normala. Dana dala, eskertzen da txamarrak barik kanpora urten ahal izatie gazen sasoiaren. Edurre itteko gogo haundixe dauket, aber eitten dauen behingoz.



Montxo Lopez

Ez dot eguraldixen inguru asko ulertzen, baina ez dot pentsetan oso normala danik. Bero larri itten dau gauzen sasoiaren. Edurre, barrez, mendixen ein daixela.



Jasone Uribesalgo

Normala ez dakit baina edarra behintzet bada. Edurre eittia gustetan jat. Edozein eguraldixen konformetan naz ni.

ESKUTITZAK



ZER EKARRI OTE DIO OLENTZEROK HERRIARI?

Aurten bai, ziur zerbait ekarri duela Olentzerok Atxabaltara. Neuk ikusi nuen zakua lepoan zuela alkatearen bulegora sartzen egundoko ziurtasunaz. Argi zeukan zein leihotik sartu behar zuen Anjel afaltzen zegoen bitartean. Nik ez dut izan aukerarik alkatearen bertsio zuzena jakiteko, baina zurrumurruek diotenez neuk eskatutakoak ekarri ditu. Hau poza! bazen ordua!

Lehenengo: atxabaltarrentzat zinema berria, gainera, antzoki moduan be erabiltzeko modukoa, kontzertuetarako eta hitzaldietarako inongo eragozpenik izango ez duena.

Bigarrena: Gaztetoendako (12-18) primerako jolaslekua: izugarria tamainan, izugarria atrakzioetan eta aparta antolakuntzan. Bertan ez

omen dira faltako irakurtzeko txokoa: aldizkariz, egunkariz eta ordenagailuz ekipatuta. Bideo gela 20ko taldeentzat eta euskarazko bideoak bertan alokatu ahal izango dira. Taldeko lanak egiteko eta monitoreen formakuntzarako txokoa; mahai arbel eta aulkiz beteta. Beheko solairuan berriz: futbolinak, mahai jokua eta hauentzako txandak hartzeko arduraduna egongo da. Asteko zazpi egunetan zabalik egongo da.

Hirugarren: Andramaixak ganore gehiagorekin ospatzeko Olentzerok aukeratu du txutxeri eta helatu saltzaile anbulantea (Bergarakoa) eta lau egunetan partenoio ondoan jarriko omen da. Gainera, umeen parkeak irauten duen bitartean bera arduratuko da plaza musika geratu barik mantentzen. Haruntzago gaztetoendako atrakzioak

gehiago falta ez daitezen Anjelen mahaian Olentzerok jadanik utzi ditu autotxokeen, tonbolaren, noriaren, kaballitoen, boxealarien telefonoak...

Eskerrikasko Olentzero.

Ah! Ahaztu egin zait esate azkenik eskutitz bat itxi duela Olentzerok Anjelen mahai gainean eta hauxe omen zihoen: "atxabaltarrok ekarri dizuedana zeuek irabazitakoa da. Gozatu ezazue. Ez galdu aukera. Kultura gazte-gaztetatik disfrutatuz eraikitzen da. Anjel: zuri ditzut hau guztia alkatea zarelako, baina espero dut laguntzarik ez zaizula faltako ilusiook egi bihur daitezen".

R. A.
15356876

Aretxagazeta

205. zenbakia
2001eko urtarrilaren 12an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia:
Eguzkigrif, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

2000ko gabonek utzitakoari gainbegirada



■ Olentzerok eskutitzak batu eta goxokiak banatu zituen umeen artean.



■ Bikain abestu zioten Olentzero eta Jesus ume jaio berriari.

Agur esan diegu gabonei, agur 2000. urteari eta ongi etorri urte eta mende berriari. 2001ak ez dakigu zer ekarriko digun, baina 2000ko gabonek badakigu zer utzi diguten.

Olentzero, Bizar Zuri, eta Erregeak urtero legez etorri ziren herrira umeen eskutitzak jaso eta opariak ekartera. Poxpolin park ere izan zen kiroletxean ume

eta gaztetxoak ez zitezen aspertu opor egun horietan. Gaurko eta atzoko Aretxabaleta eta Koruetako lehengo baserriak ere ikusgai izan ziren Aretxabaletako argazki taldearen eskutik, jende ugari pasatu zen gainera bertatik. Tartean, kontzertuak, kontzentrazioa eta beste hainbat ekitaldirekin ere gozatu dugu atxalbarrak.



■ Gabon eguna ume kantuekin esnatu zen.



■ Jende ugari etorri zen Aretxabaletako argazkiak ikustera Toki Onara.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINGEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

HAMABOSTEAN BEHIN

HAMABOSTEAN BEHIN



■ Lan bikaina egin zuten Poxpolin parkeko begiraleek, zorionak!



■ Non aukeratu eta zer egin ugari egon zen kiroletxean lau egunetan.



■ Gabon zaharretan etxetik urruti dauden presoak gogoratu gura izan ziren.



■ Leintz dendarentzat izan zen eskaparate lehiaketako lehenengo saria.



■ Olentzero eta erregeek jakin dute aurten zein opari ekarri, patineta.

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

■ SAN BIZENTE EGUNA

ARIENTZAN Urtarrilaren 22an San Bizente eguna ospatuko dute arientzarrek. Arratsaldeko 17:00etan meza izango da ermittan bertan. Auzotarrek oso gogoko dute San Bizente ermitta. Auzoko lehen eliza izan zen hau, eta hainbat istorio polit ezagutzen dira beronen inguruan. Garai batean txiki gelditu zen ermitta, eta orduan botazioa izan zen auzoan eliza berria eraiki ala lehen-goia haunditu erabakitzeke. Azkenean gaur egungo eliza eraiki zen. Hala ere, auzoko nagusienek San Bizenteri debozio handia diote.



Errekako alde bietan egongo da pasioa kiroletxetik Errotabarriraino

Joan zen astean hasi ziren Kiroletxeko zubitik Errotabarriraino egingo den pasioaren lanak. Markoleko etxeak egin zirenean onartu zen erreka ezkerreko aldean ere pasioa egitea eta Amaral enpresa erakitzaileak 22 milioiko aurrekontua dauka horretarako.

3 metroko zabalera duen

pasioa izango da eta zuhaitz eta aulkiak jarriko dira bertan. Kiroletxe pareko berdegunea, barriz, umeak baloiarekin jolastu, gazteak etzanda egon edo beste barik pasioan egiteko izango da. Lan hauek guztiak apirila ingururako bukatuta egotea espero dute udaletxean.



Herriko udaltzainak itxura barriaz

Aretxabaletako udaltzainak guztiz itxura barri-ta ikusiko ditugu laster batean. Momentuz, txapel berriarekin dabilta joan den hiletik, nahiz eta oraindik Aretxabaletako armarrria jarrea falta bertan, eta uste baino lehen euritako barria ere estreinatuko dute, laru kolorekoa hain zuzen. Hobeto ikus daitezten ete da?



PLATAFORMAKO KIDEEK ESKERRAK HERRITARREI

Euskal presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformako batzorde eragileak eskerrak eman gura die Durana kaleko oholtzatan egin-dako murelean parte hartu zuten talde guztiei. Era berean, tarte guztiek daudela gogorarazten da eta ez dela berandu hauek margotzeko. Abenduaren 31ko kontzentrazioa hurre-ratu ziren herritarrei ere eskerrak asko.

Euskal presoek, eta batez ere Kepak, egoera berdinean jarraitzen dutela ikusita, eguakotz guztietan Pagaldai-xen taberna parean elkar-tzen jarraituko dute platafor-makoek arratsaldeko 7etan.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAKO
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20

ARGAZKI DENDA

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

**Albunak
Argazki kamarak
Markoak...**



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETAKO

HAURRIK



**UMEENDAKO
MODA**

Lezama merkatal
zentrua, 15
943 77 14 86

*Urte eta erdi Lora-
mendi euskara elkar-
tean lanean ibili os-
tean Leire Okaranza
apozarra badoa
beste eginbehar
batzuetara. Tarte
honetan Aretxabale-
tako merkatariekin
egindako lana
ezagutu gura izan
dugu.*



Leire Okaranza

Loramendiko merkataritza saila

■ **Urte eta erdi honetan zein izan da zure lana?**

■ Loramendi euskara elkar-tean merkataritza sailaz arduratu naiz. Nire aurretik egon zenak batez ere merkatariek behar zituzten kartelak eta paperen itzulpenak egiten zituen. Ni sartu nintzenez beste ikuspegi bat ematea pentsatu, eta merkatarien eskaerei begira egon beharrean geuk luzatzea proposamenak erabaki genuen. Horrela hainbat ikastaro antolatu ditugu.

■ **Euskara ikasteko ikastaroei buruz ari zara?**

■ Ez, euskara ikasteko ikastaroak urtero eskaintzen zaizkie, bai klase teorikoak bai mintza taldeak, baita aurten ere. Beste ikastaro hauek euren lanarekin lotutakoak eta eurek eskatu-

takoak izan dira: paketeria, eskaparate antolaketa, eta kontabilitatea eta paper kontuen ingurukoa.

■ **Eta nolako erantzuna izan dute?**

■ Ehun merkatarik inguru daude herrian eta ikastaroretara hamar-hamabi lagun etorri dira. Ez da asko, baina antolatzaileok gustura geratu gara.

■ **Euskarako ikastaroetan dabilenik badago?**

■ Euskaltegira alfabetatzea joaten ziren merkatarik euskaldunez osatutako talde bat egon zen. Ostean bakarren bat joan da euskaltegira baina besterik ez, eta orain mintza talde bat sortzekotan gaude. Loramendin emango da ikastaroa, astean ordu bete inguru.

■ **Zergatik uste da oraindik publizitatea, errotulak... gazteleraz jarri behar direla bezeroak erakartzeko?**

■ Ohitura kontua da. Merkataritza gaztelera erabili da beti eta orain ere joera hori dago. Paperak euskaraz eta gazteleraz ateratzea alperrikako lana dela iruditzen zaie eta euskaraz bakarrik ateratzeak, ostera, beldurra ematen die, bezeroak galduko ete dituzten beldurra.

■ **Bezeroek badute zeresanik gai honetan?**

■ Bai, zeresan handia gainera, merkatariek bezeroaren gaitasun euskararenganako interesa somatu behar du.

■ **Merkatarien gai hau Loramendik berak bakarrik erosten du?**

■ Ez, merkataritza gaia berez udalarena da baina honek Loramendiren gain utzita dauka, eta udaleko euskara batzordeko teknikariarekin batera erosten du. Loramendi barruan, bestalde, hiru lagunek osatutako taldea arduratzen da gai honetaz.

■ **Aretxarte elkarte sortu denetik aldaketarik igarri da?**

■ Bai, batez ere merkatariek berak bakarrik ez dutelako euskara gehiegi zaintzen, baina orain elkarte bezala ateratzen diren paper eta kontuetan asko zaintzen da.

■ **Aholkurik emango zenioke zure ordekoari?**

■ Pazientzia etor dadila. Lana polita da baina sarritan sartutako orduen emaitzik ez da ikusten.

Etxe... bizitza?

Azken urtietan ikusi eta leiru dou, etxien preziuak zelan gora indaiuen ezelako muga barik. Gainera, etxe bat saltzen jarri orduko, bi egunetan salduta dau.

Igoera hau azkenengo lau urtietan emun da, eta noraino helduko dan ez dau jakitxeik; pentsau aurreko urtien % 56 igo ziela preziuak.

Badakigu azkenengo urtietan jendiak dirua fresko-fresko daukola, baina ezta-kitx etxe bat erosterakuen diru hori zen-bateraino ondo inbertiruten dan.

Atara deigun kontuak:

- Gaur egun gutxigorabehera etxe batek 35 miloi balixo dau.
- BEZa eta notarixako gastuak 3 miloi inguru.
- Etxia apur bat jaztia 3,5 miloi.
- Danera: 41,5 miloi.

Danok daukou dirutxo bat gordeta etxie erosteko asmuakin, baina diru horrekin asko jota BEZ, notari gastuak eta etxe altzarixak pagauko gitxuke. Orduen 35 bat miloi falta jaku pagetako. Mailegua eskatzen dou, eta esaten dozku miloiko 5.500 pta (30 urtien, 5,25% interes tasa) gutxigorabehera ordaindu biher dotzaue-la bankuei. Horrek esan gure dau, danera 192.500 pta pagau biher douela kreditue hilien.

Ba hilien irabazten douenakin heltzen jaku!!!

Erosten dou etxie hasten gare bizitzen eta tremendo. Baina bizitzen hasterakuen jan, juerga batzuk bota, argi-indarra pagau, basuria, ura, erropak,... pagau biher douela konturatzen gare.

Honi frente itxie badaukou?

- Bai, zorionak eta aurrera.
- Gutxigorabehera: animo, baina kontuan izen 30 urte diela eta gauza batzuk mugatu bihera daukouela. Arrisku bat hartu dozu baina epe luzera mereziko dau.
- Ez: kontuak ondo atera biher zien!!! baina arrisku hori hartzeko gertu bazauz, animo, bihera baldin badaukotzu.

Ohar bat bakarrik: etxia ezta lau urtetan pagetan, 24-27 urtetan baino. Horreik urte asko die. Gauza asko pasau leikez, eta batzuk ez dauz gure esku (ekonomiaren bueltak...). Ikusiko dou zer ekartzen dauen urte berri honek.

Portzierto, baten batek etxe bat saltzeko badauko prezio onien deitu ~~ARETXA~~ gazetara niri.

Hurrengo kapitulorako: etxien horren biher haundixe egonda, zela dauz horrenbeste etxe hutsik? Pentsau deigun erantzuna.

Ibon AGIRRE



LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79

Mobiliario ARENZA

· ALTZARIAK
· DISEINUA
· APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47



Zelaiak baserri zaharra Urkuluko lanak egiten hasi aurretik.

Urkulu egin zenekoa

Gabon hauetan Argazki taldeko lagunek erakusketa polita eskaini digute: Aretxabaletako argazki zahar eta barriak, herria zela aldatu den ikusteko, eta Urkuluko urtegia egiterakoan Azatza eta Korueta auzoetan urpean desagertutako hainbat baserriren erretratuak. Gertakari hori atzo gertatu zela iruditu arren batzuei, urteek aurrera egin dute, 25 urtetik gora ei dira eta.

Azatza eta Korueta auzo inguruak, Urkulu urtegia erdian dagoela, Aretxabaleta eta Gipuzkoako paraje ederrenetakoan artean daudela esatean ez ginateke gezurretan ibiliko. Negu edo uda, udazken edo udaberri, edozein urtarotan joanda

ere, bertako zelai eta basoen koloreek, hegaztien soinuek eta baserrietako abereen arran hotsek leku paregabea eskaintzen dute, takarraran egin, bizikletan ibili edo beste barik paisajeaz gozatzeko.

Urkuluko urtegia, osteraz, ez da berezko ur putzua,

nahiz eta askok, gazteok batez ere, betidanik ezagutu bertan. Urtegia egiteko gainera, Azatza eta Korueta auzoetako hainbat lur-sail eta baserri urpean geratu ziren, beraz, ez zen nolanahiko obra izan, ez horixe, hainbat baserriaren oroitza, amets eta

eguneroko bizitza ere han urperatu ziren eta.

Diputazioaren proiektua
Urtegiaren helburua, Leintz bailarako herriek, eta batez ere Arrasatek, zeukaten ur eskasia asetzea izan zen. Herrietako biztanleriak poliki-poliki



Urtegiko obrak aurrera zihoazen 1979an.



Ubaa (Ubao) baserria, hutsik ordurako.

Argazkia: Xabier Arregi

gora egiten zuen bitartean, uraren arazoa, arazo latzean bihurtu zen behintzat uda partean.

Urkuluko urtegiaren egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan zen. Bertako obrak 1975ean hasi ziren eta bost urte inguru iraun zuten. Enpresa eraikitzailea kanpotarra zen eta langile guztiak ere kanpotik etorri ziren.

Azatzako bost, urpean geratu ziren betiko. Koruetan desagertutakoak: Mendikurtza, Ubaa (Ubao), Errota-Zahar, Dixatz (Dixa-Etxe), Siondo-Behekoa, Siondo-Goikoa, Barrutikoa, Uxar-Haundi (Urizar-Haundi), Uxar-Txiki (Urizar-Txiki) eta Urkulu izan ziren. Azatzan, barriz: Añabarta

(Ariznabarreta), Aldaixena, Okina, Sarbiarte eta Zelaiakua. Baserriren bat edo beste ordurako hutsik zegoen, baina gehienetan familiak bizi ziren. Baserritar horiek lur-sailez gain, etxea, arbasoen etxea, eta lanbidea, abere eta ortuen bidez etxerako jatekoa ateratzeko bidea,

galdu zuten.

Baserritarrek urtegia beharago egitea eskatu zioten Foru Aldundiari, Zubillagaruntz hain zuzen. Izan ere Oñatiko lurretarruntz egitea samurragoa ei zen eta baserririk ere ez zegoen bertan, baina diputazioak ez zuen eskaera onartu. Batzuen haserreaz eta beste batzuen etsipenaz proiektuak aurrera egin zuten.

Baserriak urpean

Batzuen onurak besteen kaltea ekarri zuen, eta tristura galanta ekarri zien baserritar bati baino gehiagori. Izan ere, zelai eta pinudiez gain, Koruetako hamar baserri eta

Zelai eta pinudiez gain, Koruetako hamar baserri eta Azatzako bost, urpean geratu ziren betiko

Baserri berriak

Urtegia urez betetzen hasi aurretik, urpean geratu behar ziren etxeak bota egin ziren. Botatako hamabost baserri horietatik gutxi batzuk besterik ez



Dixatz (Dixa-Etxe) baserria.

Argazkia: Xabier Arregi



Urkulu errota.

Argazkia: Xabier Arregi



Argazkia: Xabier Arregi

Siondo-Goikoa eta Siondo-Behekoa baserriak.

ziren barriro eraiki, Koruetakoak: Mendikurtza eta Urkulu, hau Azatza auzoan berreraiki zen, eta Azatzakoak: -Aldaixena, Sarbiarte eta Zelaikua. Koruetako Iraban, ostera, ez zen urpean geratu, baina Foru Aldundiak berarentzat hartu zuen eta bertako familiak Azatzen egin zuen etxe barria.

Baserritarren esanetan, inork ez zien samurtasunik eman baserri barriak eraikitzeko eta eraikitakoak bakoitzak bere lurretan egin zuen, Zelaikua eta Sarbiarteko zati bat esaterako Sorgin-mendi deitutako zalaian. Etxeen proiektua egiteko arkitektua ere

eurak topatu behar izan zuten.

Urkuluko eta Bolibarko erreketako urak

Dikea dagoen lekuan Ur-



Argazkia: Xabier Arregi

Mendikurtza baserria.

kulu izeneko errota zegoe-lako jarri zitzaion Urkulu izena urtegiari. Kurtzebarri mendiko iparraldetik datozen ia ur guztiak jasotzen ditu, baina batez ere

Urkulu eta Bolibar erreketatik datozen urez betetzen da Urkulu. Bolibarko erreka hori Arkarazotik bueltan dator, eta Arientzarako bide-kurtze parean sartzen da urtegiara.

Hasiera batean mesfidantza eta zalantza ugari sortu zituen urtegi hartako ura gaur egun zortzi herrietaraino heltzen da: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta, Antzuola eta Soraluze eta ia 70 mila lagunengatik ur egarria asetzen du.

Sarritan gertatu ei den legez, batzuen onurak beste batzuen sakrifizioa dakar, eta horixe gertatu zen historia honetan ere.

Urtegiaren datu orokorrak:

■ Obraren aurrekontua	380 milioi.
■ Urtegiaren ahalmena	10.000.000 m ³ .
■ Urtegiak hartutako luraren azalera	1.000.000 m ² .
■ Inguratzen duen bidearen luzera	6.800 m.
■ Urtegiaren altuera erreka ibilgutik	48 m.
■ Itsasoaren mailatik uraren kota altuena	333 m.
■ Hodi eta hustubide galerien neurriak	155 m. luzeera 4,20 m. altuera 4,50 m. zabalera
■ Erabilitako materialeak:	porlana burdina
	4.650 m ³ . 180.000 kilo.



Argazkia: Xabier Arregi

Errota-Zahar errota, hau ere hutsik ordurako.




Azatzako Zelaikua baserria.




Futbola

Bigarren erregionalak ez du kopa jokatu. Liga amaitu berri du bigarren erregionalak. Azken partiduan 4-3 galdu zuten antzuolarren aurka, eta horren ondoren sailkapen orokorrean 6. postuan sailkatu da Alberto Perezen taldea. Ez du hortaz igoera fasea jokatu erregionalak, ezta kopa ere. Taldean arazo batzuk egon direla eta, zuzendari-tzak taldea ez ateratzea pentsatu du, eta ez dute beraz kopa jokatu.



Xakea

Arlutz Bk promozioa jokatu du. Datorren asteburutik aurrera Arlutz B taldeak Gipuzkoako lehen mailara igotzeko promozioa jokatu du. Gipuzkoako bigarren mailan aritu dira aurrean, eta bigarren postuan bukatu dute liga. Datorren lau asteetan mailaz igotzeko promozioa jokatu dute. Txapelketa berria jokatu duten taldekideak Jesus Mari Andres, Andoni Carrasco, Kepa Balenziaga eta Joseba Altube dira.



Patinajea

Patinaje ikastaroa kirole-txean. Aretxabaletako kirol zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du. Hamasei urtetik gorakoei zuzenduta egongo da, eta zapatu goizetan emango da 12:00etatik 13:30era. Izena emateko epea urtarrilaren 17an bukatu da, eta Aretxabaletako kirol zerbitzuetara zuzendu behar da horretarako. Deba-goieneko kirol zerbitzuetako abonatuak 2.000 pta ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 2.500 pta.



Futbola

Preferenteak buelta hasiko du domekan. Ligako lehen bueltako azken partidua emaitza positiboaz bukatu zuen Udako talde nagusiak. Jonan Larrinagaren bi golei esker Uda 2-1 gailendu zitzaion Anaitasunari. Emaitza horren ondoren, sailkapenaren erdierdian dago taldea. Bueltako lehen partidua, barrez, datorren zapatuan jokatu da Ibarren bertan 17:00etatik aurrera. Udako preferenteak Urolaren aurka neurtuko ditu indarrak.

Joma taldeak penaltietan irabazi zuen Peña Zubi txapelketa

Urtarrilaren 4an jokatu ziren Peña Zubi txapelketako azken norgehiagokak. Finala Joma eta Mapfre B taldeek jokatu zuten. Lehia gogorra izan zen bi taldeen artean, eta binako berdinketaren ondoren, penaltietan erabaki zen norgehiagoka. Azkenean Joma taldea nagusitu zen. Bi talde hauen ondoren sailkapena ondorengoak izan zen: 3.a Bar Basilio; 4.a Mapfre A; 5.a Onenak; 6.a Albondigas; 7.a Leniz sport; 8.a Esko

sport.

Txapelketako talde atseginarentzat ere sari berezia egon zen, Esko sport talde atxabaltarrak jaso zuen beirau. Epamahiak adinez talde gazteagoa zelako eman zion saria, eta baita torneoan oso polito aritu zirelako ere.

Peña Zubi txapelketa 1984an hasi zen jokatzeko. Torneoak hurrengo urtean Udako infantiletan arituko diren jokalariek fitxatzea du helburu.



Penaltietan hainbat partidu erabaki ziren



Joma taldea txapelketako irabazlea



Esko Sport Aretxabaletako taldeak talde atseginaren saria jaso zuen

KIROL ETXeko KUOTEN KARGUA

Urtarrilaren 15ean 2001. urteari dagokion kiroletxeko txartelaren kuota kargua egingo da. Hori dela eta, bazkideek abonatu kuotan aldaketa bat egin edo baja eman gura izango balute, data hau baino lehenago egitea komeni da. Kirol txartela dirutan ordaindu dutenak, bestalde, ezingo dira txartelarekin kiroletxera sartu epe horretatik aurrera.

JONAN FUTBOLERA BUEL-TATU ETA GARAIPENA EMAN DIO TALDEARI

Joan den astebukaeran garaipena lortu zuen Prefe-rente mailako udak Anaitasunaren aurka 2-1 gailendu ondoren. Udako bi golak Jon Ander Larrinagak sartu zituen. Lehen hirugarren minutuan etorri zen. Ibarra bildu zen ikusleagoak txalo artean jaso zuen iazko pitxi-txiaren gol ederra. Hortik aurrera Anaitasunak gol aukera batzuk izan zituen arren, deskantsu osterarte ez zen azkoitiarren gola iritsi. Garaipenaren gola, barrez, 67. minutuan sartu zuen Jonanek.

Iazko denboraldian lan arazoengatik futbola utzi zuen Jonanek. Hala ere, taldearen egoera ona ez zela eta, zuzendaritzak itzultzeko eskatu dio. Denboraldia bukatu artean jokatu du.



Afizionatuetaکو lehenengo mailan jokatu du Lasagabaster Alzola bikoteak

Lasagabaster Alzola bikotea lehen mailako afizionatuetaکو

Lehen mailako afizionatuetaکو jokatu du Lasagabaster eta Alzolak udaberriko torneoan. Urtarrila bukaera aldera hasiko da, eta hamabi bikote izango dira guztira. Bikoteak lehen urtea izango du maila horretan. Izan ere, orain artean bigarren mailako afizionatuetaکو aritu dira. Hala ere, Gipuzkoako elkarte arteko pilota torneoan txapelketan hirugarren postua lortu ondoren, lehen mailara

pasatzeko aukera eman die.

Hemendik aurrera orain artean baino aurkari gogorragoak izango dituzte, baina biak ere ilusioz eta gogoz daude torneo berriari ekiteko. Lasagabasterrek aurrean jokatzeko du eta Alzola, barrez, atzelaria da. Biek denbora luzean jokatu dute elkarrekin eta elkar ondo ezagutzen dute.

Momentu honetan, bestalde, Zaramaga torneoa jokatzeko ari dira.

FRAN MIGEL GIPUZKOA-KO LEHENA ETA AITOR ALCAIDE BIGARRENA

Gabonetan Gipuzkoako xake absolutoko txapelketan Fran Migel lehena izan genuen, eta Aitor Alcaide bigarrena. Esteban Romero, barrez, zazpigarren gelditu zen. Txapelketa Donostian egin zen zazpi egunetan zehar, eta hiru xake jokalariaik bikain aritu ziren. "Horrelakoetan konstantzia haundia behar izaten da, eta kasualitate gutxi egoten da", jakinarazi digu Aitor Alcaidek. Txapelketa irabazi ondoren, Fran eta Aitor Aste Santuan izango den Euskal Herriko txapelketarako sailkatu dira. Horrez gain, momentu honetan jokatzeko ari diren Euskal Ligarako entrenamendu gisa ere balio izan du txapelketa honek.

ARLUTZ A TALDEA MAILAZ JAISTEKO ARRISKUAN

Euskal ligan dagoen Arlutz A taldeak mailaz jaisteko arriskua izan dezake aurrean. Taldea zazpigarren postuan dago sailkapen orokorrean, eta azken hiru postuen artean dagoenez, mailaz jaisteko arriskua dute taldekideek. Hala ere, oraindik bost partidu gelditzen dira liga bukatzeko, eta seigarren postura igoz gero, maila mantenduko luke Arlutz A taldeak.

Okindegia - Gozolegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

PIEZOSUNZUE S.A. **FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56


Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14

Leintz-Rosi mertzeriak irabazi du 2000ko eskaparate lehiaketa. Rosi Martinez de la Hidalga ilusio haundiz baina sorpresaz hartu du notizia. Izan ere, ez zitzaion burutik pasatu, bere eskaparateak lehen saria jasoko zuenik.

Rosi Martinez de la Hidalga "Eskaparateak ez dira oso beteak jarri behar"



■ **Zorionak Rosi. Nola jaso duzu berria?**

■ Ilusio haundiarekin.

■ **Espero zenuen?**

■ Ez, burutik pasatu ere ez zitzaidan egin neuk irabaziko nuenik. Oingo egunetan horren lanpetuta ibili naiz, lehiaketa gutziz ahaztuta nuela.

■ **Lehenengo aldia da saria irabazi duzuna?**

■ Bai, lehena.

■ **Eskaparateak apaintzeko ikastaroak lagundu dizula uste duzu?**

■ Bai, beti hartzen da ideiaeren bat. Loramendi elkarteari eskertu beharko diot dendariokin akordatzan delako.

■ **Zein aholku emango zeniguke eskaparatea apaintzerakoan?**

■ Garbi daukat eskaparatean ez direla gauza larregi jarri behar. Gauza asko badaude ez zara ezertan ere fijasen.

■ **Denbora asko kendu dizu eskaparatea txukuntzeak?**

■ Bai, dendariok denbora gutxi izaten dugula kontuan hartuta, bai.

■ **Nondik hartu dituzu ideiak?**

■ Ikastaroetatik, beste eskaparate batzuetatik...

■ **Nolakoa da saria jaso duen eskaparatea?**

■ Kortinak urdinak direnez, eskaparatea urdin eta gris kolorez apaindu nuen. Gero poliki-poliki apaintzen joan naiz. Hainbat adorno jarri ditut, dendako produktuez lagundurik.

■ **Norbaitek lagundu dizu?**

■ Ez neuk bakarrik apaindu dut.

■ **Datorren urterako animatuta?**

■ Sari bat jasotzeak beti animatzen du.

■ **Aretxarte elkarte sortzeak zer ekarriko du dendariontzat?**

■ Dendariok batzea positiboa dela uste dut. Denon indarrak batuta ekintza desberdinak egin daitezke. Hori bai, orain hasiera denez, batzordekideak egiten ari diren esfortzua eskertu nahiko nuke.

■ **Zer eskatu diozu urte berriari?**

■ Osasuna eta bakea.

■ **Urtarrileko aldapa igartzen da?**

■ Urtarrila ez da hilerik txarrena niretzat. Otsailean esaterako gehiago igartzen da. Neguko gauzak erosita daude otsailean, eta udaberriaren zain zaude

■ **Zer saldu da gehien pasa diren gabonetan?**

■ Barruko erropak batez ere.

■ **Gabon ostean dieta zaindu beharrik?**

■ Ez daukat horretarako borondaterik.



TXILARRA

**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57



Milurte, gizaldi, hamarkada eta urte berri on

Zenbat "estreno" egun bakar batean. Nik behintzat, beti bezala eman nion hasiera urteari: mahatsa jaten eta txanpana edaten, eta horrela hasten dugun bitartean, gaitz erdi!!

Esan bezala, urtea hasi barri dugu. Bestalde, "Hasiberriak", telebista saio bat ei da, eta bertarako casting bat izan zen aurrekoan. Atxabaltar batzuk ere parte hartu ei zuten. Zoritxarrez, momentuz ez zitzairen beraien perfila gustatu, eta beste batzuk aukeratu zituzten. Beste batean saiatu behar, sarritan ez baita ona edo txarra izaten, beraiek nahi duten perfila betetzea baino.

Aspalditxoan perfila ondo betetzen ari dena, **Jose Lonbide** da. Arrasateko Santo Tomaseko ferian ere, barazki ekologikoan saria jaso zuen. Ez dituzula oraindik bere barazkiak probatu? Galde egingo diot non duen ortua eta joango gara egun batean probatzera, merezi du eta.

Murruxok ere amaiera ona eman zion 2.000. urteari, bere lokal barria inaguratu. "Txaranga" eta guzti ibili ziren abenduaren 30ean eguerdian Durana kalean. Ondoren, luntxa izan zuten bertaratu zire-

nek eta baita garai bateko argazkiak ikusteko aukera ere. Makinatxo bat atxabaltar pasatu da egunotan bertatik. Bateko: "Ene!! Etxe honeik zelako aldatuta dauzen..." edo "Laminaziñoko fabrikie be lekutan geldittu don..." Urte gutxitan gure herriak aldaketa handiak izan dituela konturatu gara bat baino gehiago, eta bide batez, akaso hain gazteak ere ez garela pentsatzera bultzatu gaituzte argazki hauek baina "lo bailau bailau esta" diote eta aurrera ondo bailautakoari!!

Gabon zaharretan, dantzan aritu zena, beste batzuen artean, Udaletxeko Olentzero izan zen. Gabon guztiak Udaletxea zaintzen egon ondoren, honi ere, bertako lankideei bezala aginaldoa emango zioten akaso eta bere lana bete zuela eta, urteko azken egunean, herritarrekin Ezkutun ibili zen dantzan.

Beno eta opor motz hauek ez didate gehiagorako eman. Neuk ere merezi nituen oporrak eta kanpoan ibili naiz, beraz, ez naiz txutxumutxu askorekin enteratu. Agian urte berri egunean, 16-18 urte bitarteko gazteren batekin egon izan banintz, kontatuko zizkidaten gabon zaharretako ligeren batzuk, baina ni neu ez naiz enteratu.

M. J. Arzak



Todos los hermosos caballos

Cormac McCarthy
Debate, 1999

1950 inguruan kokatutako nobela honetan hamasei urteko bi gaztek beren etxea utzi eta zaldiak hartuta Mexikora doaz bizitza berri baten bila. Nobela epikoa da, sentimenduak zuzenki islatzen ez dituen, baina bizitza gogor eta kupidagabea erakutsiko diguna.

Mugako trilogiaren lehengo liburua duzue hau, Texas eta Mexiko arteko mugan kokatua eta mutil gazteak protagonista hartzen dituen, nahiz eta liburu bakoitzak protagonista desberdina duen. Beste biak "En la frontera" eta "Ciudades de la llanura" ere aurkituko dituzue liburutegian.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- ~~Atzo pasaita~~ haiziek balkoien nauken erropa danak eruzten.
- Pentsaizu! hau egualdixau zoratu jaku oingotxien. Gaur hego haixie, bixer eurixe eta ~~bixer pasaita~~ edurre igual. (Txarto)
- Aurrekuen haiziek balkoien nauken erropa danak eruzten.
- Pentsaizu! hau egualdixau zoratu jaku oingotxien. Gaur hego haixie, bixer eurixe eta etzi edurre igual. (ondo)



URTARRILA**12 EGUAKOTXA****■ KONTZERTUA**

Xabaltz, Iparraldeko taldeak joko du Kurtzebarri eskolako aretoan. Talde honek bateria, bajua, txalaparta eta albokaz osatutako musika jotzen du. Kurtzebarri eskolako aretoan izango da kontzertua gaueko 20:30ean.

13 ZAPATUA**■ ANTZERKIA**

Sebastopoleko titiriteroak Mamutxoren arazoa antzezlanaren aurkeztuko digute. 17:00etan izango da kiroletxean. Sarrerak aurrez 300 pta eta takilan 500 pta. Sarrerak salgai: kultur etxean, ludotekan eta Loramendi elkarteetan.

**14 DOMEKA****■ MENDI IRTEERA**

Zaraia mendi taldeak Albeniz mendira urteera egingo du. Urteera ordua goizeko 8etan izango da Zariaiako lokaletik.

18 EGUENA**■ SARI BANAKETA**

Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa egingo da 19:00etan udaltxe zaharreko aretoan.

**URTARRILAK 19 OTSAILAK 4****■ PINTURA ERAKUSKETA**

Gurutze Mujikaren pintura lanak erakusgai egingo dira Arrasateko harresi aretoan. Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

21 DOMEKA**■ MENDI IRTEERA**

Murruxiko mendizale elkarteak haurrentzako urteera antolatu du. Ibilbidea: Aretxabaleta, Murruxiko, Larriño, Otxalazelai, Aretxabaleta. Urteera goizeko 9:30ean izango da Murruxikoko lokaletik. Buelta, barrez, 13:00-13:30erako egingo da.

22 ASTELEHENA**■ SAN BIZENTE EGUNA ARIENTZAN**

Auzoko soinujoleekin ongiatorria egingo da eta itxaflero jaurtiketa 16:45ean. Ondoren meza izango da San Bizenteko ermitan. Auzoko soinujoleekin kalejira izango da ostean.

IKASTAROAK**■ SALOIKO DANTZAK**

Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak saloiko dantzen ikastaroa antolatu dute. Urtarrilaren 12an hasiko da eta eguakotzetan emango da 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izena eman gura izanez gero Loramendira zuzendu edo eta 943 77 09 70 telefonora deituta egin daiteke.

■ ARDURAK ELKARTUKATZEKO IKASTAROA

Arrasateko Udalak gizon eta emakumezkoen artean etxe-lanak eta ardurak banatzeko ikastaroa antolatu du. Emakumezkoen tailerretan elektrizitatea, iturgintza, brikolagea eta autoen mekanika emango dira. Gizonezkoetan, barrez, jostintza, lisatzea, sukaldaritza eta garbiketara. Ikastaroak urtarrilean hasi eta apirilaren bitartean luzatuko dira, martizen eta egunenetan 18:00etatik 20:30etara. Matrikula 2.000 pta. Izen ematea Arrasateko gazte bulegoan egin daiteke, 943 77 00 65 telefonon.

BALTRAKUK (Hikaz berbetan)

Mikel Arroiabe

Zorion agurrak



Oier Etxebarria
Urtarrilak 12
30.a? Ez, lasai!!
Urte bete daukazu
oraindik kontzien-
tziazten joateko.
Zorionak!



Cristina Velasco
Urtarrilak 13
Zorionak aita-amen
partetik.



Eli Zuazabeitia
Urtarrilak 13
Zorionak tia Eli
eta muxu haundi
bat Markelen eta
etxekeoen partetik.



Asier Castellano
Urtarrilak 14
Zorionak aita-ama-
men partetik.

Txistuak • Txaloak

Ez da gai larri hau ikutzen dugun lehen aldia. Izan ere, orain hilabete batzuk Udalak hainbat kartel jarri zituen herriko lorategietan, txakurren jabeei beren txakurrek beharrak lorategian egin ez ditzaten jakinarazteko. Hona hemen emaitza: kartelak sarri-sarri kentzen dituzte beren lekutik, eta txakurrek lorategiak beren kakekin apaintzen jarraitzen dute. Gainera, ugaritu ere egin direla esan daiteke. **Txistua** kartel hauek errespetatzen ez dituzten txakurren jabeei, eta baita Udalari ere, egoera konpontzeko ez duelako ezer egiten, ez kakekin, ez eta aske dauden txakurrekin ere. Zinegotzi jaunak irtenbidea ez da beste aldera begiratzea, korrea erabilarazi edo izunak jartzea baino.



Jaiotakoak

■ Miren Etxeandia Larrinaga

Abenduaren 21ean.

■ Igor eta Mireia Madinabeitia

Abenduaren 21ean.

■ Mikel Gonzalez de la Concepción

Abenduaren 21ean.

Hildakoak

■ Lorenzo Bernal Jauregi.

44 urte
Abenduaren 21ean.

■ Nicolas Lasagabaster

Okina. 94 urte
Abenduaren 23an.

■ Julian Elorza Jausoro.

99 urte
Abenduaren 28an.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Errasti Idigoras familia

Seme-alaba askoko familiak izaten ziren lehenako haiek. Errasti-Idigoras bikoteak ere ume ugari ekarri zituen mundura: hamabi guztira. Aita, Nazario Errasti Larrinuko Zuatzu baserrian jaio zen. Ama ere, Celestina Idigoras Larriñutarra zen, Etxebarri baserrikoa hain zuzen. Nazario eta Celestina Zuatzun bizi izan ziren ezkondu ondoren. Hala ere, Zestua joan ziren gero.

Urte batzuren ondoren gerra garaian berriz ere jaio-terrirra bueltatu zen familia guztia.

Fotografia 1936. urte inguruan ateratakoa da Zestuan bertan. Aita-ama eta seme-alabak agertzen dira bertan. Gaur egun lau anai-arreba izan ezik gainontzeko guztiak bizi dira. Urte asko hartu dituzte, gainera, batzuk 80tik gora. Argazkian goian: **Isabel Errasti, Nazario Errasti, Je-**

sus Errasti "Ladrillos", Sor Maria Errasti, Eugenio Errasti, Conchita Errasti.

Behean: **Celestina Idigoras (ama), Rosario Errasti (eskuetan), Jose Errasti, Esperanza Errasti, Benigno Errasti "Txurdo", Salvador Errasti, Nazario Errasti (aita) eta Juan Luis Errasti "Kurta".**

Argazkia: Juan Luis Errasti
Informazioa: Juan Luis Errasti.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Prakak
- Txamarrak
- Sudaderak eta abar

BEHERAPENAK!


Zapatilak

%20-50

San Andresen eta Garibain

ARRASATEN

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
 Zigorrola, 1 8. Pabilioia
 Tel.: 943 77 11 30
 ARRASATE



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK
Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA
Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagarrik